

## KIRURGIA IREKI BIDEZKO NEFREKTOMIA ERRADIKALA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA NEFRECTOMIA RADICAL VIA ABIERTA

### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:  
..... Data: .....

### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

### B. INFORMAZIOA:

Teknika honen bidez, giltzurruna erabat erauzi nahi da. Ebakuntza tumore gaizto bat tratatzeko egiten da eta, normalean, sendatzeko edo arintzeko asmoarekin. Batzuetan, gongoil erauzketa erregional edo erradikalarekin batera egiten da. Salbuespenez, immunoterapia-tratamendu baten ondoren ere egin daiteke nefrektomia.

Ebakuntza hau egiteko, anestesia orokorra eman behar da. Horrek eragin ditzakeen arriskuen berri anestesia zerbitzukoek emango dizute. Ebakidurak abdomenean, inguru torakoabdominean edo gerrialdean egin ohi dira, tamainaren, kokalekuaren eta lesioen arabera. Batzuetan, kaba benaren afekzioa dela-eta (tronbo batengatik), ebakuntza egin behar izaten da bai kaba benan bai giltzurruneko benan, tronboa erauzteko. Ebakuntza barruko aurkikuntzak direla eta, baliteke kirurgia egin bitartean prozesua aldatu egin behar izatea, tratamendu egokiago bat eman ahal izateko.

Ebakuntza hau kirurgia garrantzitsua da, eta zailtasuna eta larritasuna giltzurrunaren tamainari eta gaixoaren ezaugarriei lotuta egongo dira. Ebakuntza ondorengo aldia luzea izan ohi da (5-7 egun) eta, denbora horretan, zunda eta drainadurak kenduko dira, medikuak agindutakoaren arabera.

### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Teknika egokia aukeratu eta era egokian gauzatu arren, espero gabeko ondorioak ager daitezke, bai edozein ebakuntzatan ager daitezkeenak, organo eta sistema guztiei eragin ahal dietenak (tronbosi benosoak edo odoljario digestiboak, prebentzio-neurriak hartu arren), bai prozedura honexeri dagozkionak. Honelakoak izan daitezke:

### B. INFORMACIÓN:

Mediante esta técnica se procede a la extirpación radical del riñón. La intervención suele realizarse para tratar un tumor maligno y, habitualmente, con intención curativa o paliativa. Puede, en ocasiones, asociarse a una extirpación de ganglios regional o radical. De forma excepcional, la nefrectomía puede realizarse tras un tratamiento de inmunoterapia.

La intervención se realiza bajo anestesia general, de cuyos riesgos específicos le informará el Servicio de Anestesia. Las incisiones más habituales son la abdominal, la toracoabdominal o la lumbar, en función del tamaño, localización y lesiones. En ocasiones está afectada por un trombo la vena cava, en cuyo caso será necesario actuar sobre ella y sobre la vena renal para extirpar el trombo. Cabe la posibilidad de que durante la cirugía a la vista de los hallazgos intraoperatorios se modifique el procedimiento para dar un tratamiento más adecuado.

Esta intervención es una cirugía importante cuya dificultad y gravedad dependen de la enfermedad del riñón y de las características del enfermo. El postoperatorio normal es prolongado (entre 5-7 días) y durante este tiempo se irán retirando las sondas y/o drenajes cuando el médico lo considere oportuno.

### C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

A pesar de la adecuada elección de la técnica y de su correcta realización pueden presentarse efectos indeseables, tanto los comunes derivados de toda intervención y que pueden afectar a todos los órganos y sistemas (como trombosis venosas o hemorragias digestivas a pesar de hacer prevención), como otros específicos del procedimiento:

- Giltzurruna erauztea ez lortzea eta, beraz, aurreko sintomatologiak bere horretan jarraitzea, erabat edo partzialki. Gernu-infekzioa, ebakuntzaren ondoren jarritako maskuriko zunda dela eta (halakorik jarri bada).
  - Odol-ateratzea, bai ebakuntza egin bitartean bai ondoren; garrantzitsua izan daiteke eta baliteke transfusioak edo beste tratamendu batzuk maiz egin behar izatea (larritasun txikitik oso handira).
  - Biriketako konplikazioak, toraxa irekitzearen ondoriozkoak: pneumonia; hemotoraxa (odola ateratzea bular-barrunbean); pneumotoraxa (airea bular-barrunbean); pleura-barrunbearen infekzio masiboa; hernia diafragmatikoa, diafragma irekitzearen ondoriozkoa; paralisi diafragmatikoa, nerbio frenikoaren lesioagatik, arnas-ondorioekin (larriak edo ez hain larriak); arnas-gutxiegitasuna, aurreko konplikazioen edo aurreko patologia baten ondoriozkoa. Konplikazio horiek oso larriak izan daitezke.
  - Zauri kirurgikoaren ondoriozko arazo eta konplikazioak: infekzioa; zauria irekitzea (dehizentzia); fistula iraunkorrak edo iragankorrak; aurreko konplikazioen edo orbaintze anormalaren ondoriozko akats estetikoak; jostura-materialarekiko intolerantzia (baliteke erauzi egin behar izatea); neuralgiak (nerbio-minak), inguruko sentikortasuna handitzea edo gutxitzea.
  - Beste errai batzuen (hestea, barea edo gibela) lesioak; lesio baskular garrantzitsuak (kaba bena, aorta, arteria, giltzurrun gaineko benak eta abar); abdomena irekitzearen ondoriozko konplikazio abdominalak (heste-paralisia, iragankorra edo iraunkorra, heste-buxadura, peritonitisa –heste-barrunbearen infekzioa–), beste ebakuntza bat behar izan dezakeena.
- Konplikazio horiek tratamendu medikoarekin (sendagaiak, serumak eta tankerakoak) konpondu ohi dira, baina beharrezkoa izan daiteke beste ebakuntza bat egitea, normalean urgentziaz. Konplikazio oso larrietako bat heriotza da.
- No conseguir la extirpación del riñón por lo que persistirá la sintomatología previa, total o parcialmente. Infección urinaria como consecuencia de la sonda vesical post-intervención, si ésta fuera precisa.
  - Sangrado, tanto durante la operación como en el postoperatorio, que puede ser importante y requerir frecuentemente transfusión u otros tratamientos y cuya gravedad oscila desde mínima hasta muy grave.
  - Complicaciones pulmonares como consecuencia de la apertura del tórax: neumonía; hemotórax(sangrado en la cavidad torácica); neumotórax (aire en la cavidad torácica); infección masiva de la cavidad pleural; hernia diafragmática como consecuencia de la apertura del diafragma; parálisis diafragmática por lesión del nervio frénico con repercusiones respiratorias más o menos graves; insuficiencia respiratoria como consecuencia de complicaciones anteriores o patología previa. Estas complicaciones pueden llegar a ser muy graves.
  - Problemas y complicaciones derivadas de la herida quirúrgica: infección, apertura (dehiscencia) de herida; fístulas permanentes o temporales; defectos estéticos derivados de las complicaciones anteriores o cicatrización anormal; intolerancia al material de sutura que puede precisar su extracción; neuralgias (dolores nerviosos), aumento o disminución de sensibilidad en la zona.
  - Lesiones de otras vísceras (intestino, bazo o hígado); lesiones vasculares importantes (vena cava, aorta, arteria y vena suprarrenales, etc.); complicaciones abdominales como consecuencia de la apertura del abdomen (parálisis intestinal pasajera o persistente, obstrucción intestinal, peritonitis o infección de la cavidad intestinal) que puede requerir una nueva operación.
- Estas complicaciones habitualmente se resuelven con tratamiento médico (medicamentos, sueros...) pero pueden llegar a requerir una reintervención, generalmente de urgencia, incluyendo las complicaciones muy graves un riesgo de mortalidad.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

#### D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

#### E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikiak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

#### F. ORDEZKO AUKERAK:

Sendatzeko, ez dago bestelako tratamendurik; izan ere, erradioterapia, kimioterapia edo immunoterapia tratamendu aringarriak dira.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

#### D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

#### E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

#### F. ALTERNATIVAS:

No hay otra alternativa como tratamiento curativo, ya que la radioterapia, quimioterapia o inmunoterapia son tratamientos paliativos.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

**Pazientea/ El Paciente****Pazientearen izen-abizenak**Nombre, dos apellidos  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Medikua/El/La Médico****Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad****Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**

Adierazitako prozedurapean **EZ JARTZEAREN** irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

.....  
**Sinadura eta data**

Firma y fecha